

*“Nire ibilbide profesionalaren lehen urratsak emateko, Lantegi Batuak-en praktikak egitea aukeratzen dut”*

## VIII. Beka Deialdia Desgaitasuna duten Pertsonentzat: PRAKTIKAK LANTEGI BATUAK-en



### Nahitaezkoa:

- > %33ko edo gehiagoko desgaitasun-ziurtagiria.
- > 2023-2024 ikasturteko Gradu, Graduondo edo Masterreko titulaturia izatea.

LANTEGI BATUAK irabazi asmorik gabeko fundazio bat da, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan-aukerak sortzea du helburu.

Horregatik, Mondragon Unibertsitatearekin batera beka deialdi bat argitaratu da desgaitasunen bat duten ikasleen edota tituladunen enplegarritasun aukerak gehitzeko, LANTEGI BATUAK-en lantegiren batean 6 hilabeteko praktikak eginez.

### Nola?

Beka eskatu ahal izateko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- LANTEGI BATUAK-en eskabide-inprimakia. (Jaitsi daiteke Lantegi Batuak-en webgunetik <https://www.lantegibatuk.eus/wp-content/uploads/2022/04/220426ImpresoSolicitud-WEB-2.pdf>).
- NAN (fotokopia) eta argazki bat (karnet tamainakoa).
- Desgaitasuna akreditatzeko ziurtagiriaren, Gizarte Segurantzako afiliatu txartelaren eta ikasketaziurtagiriaren fotokopiak.
- Curriculum Vitae.

### Noiz?

- 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean: eskabideen aurkezpena.
- 2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era: aurrez hautaturiko hautagaiei elkarrizketak.
- 2025eko otsailaren 3tik uztailaren 31ra bitartean: praktikak egitea.

### Zenbat?

Ikasle bakoitzarentzat praktikak egiteko esleitutako diru kopurua hilean 800€koa izango da.

(Praktika ez baldin bada lanaldi osokoa, dagokion parte proportzionala emango da).



Interesatuta dauden pertsonak beka lortu ahal izateko eskaera entregatu dezakete Unibertsitateko Errektoretzan, Loramendi kalea, 4 - Arrasate, Idoia Peñacoba edo Ainara Aranbarriren izenean, abenduaren 15a baino lehen.

Informazio gehiago eskatzeko:

Errektoretza

☎ 943 71 21 85

[info@mondragon.eu](mailto:info@mondragon.eu)